

GREBA DEIALDI PROTOKOLOA

1 DEIALDIAREN BALDINTZAK

Greba deialdia ikastetxeko edozein ikaslek egin dezake, beti ere deialdi ofizial batean oinarrituta.

Bozketaren emaitza, gutxienez, grebaren hasiera baina 24 ordu lehenago jakin beharko da.

Greba deialdia onartzen bada, honen ondorioz egindako huts egiteak, zurututako huts egite modura zenbatuko dira.

2 FUNTZIONAMENDUA

Greba deitzaileak Ikasketa Buruari aurkeztu beharko dio greba deialdia eta bera ez balego Zuzendaritzako kideren bati.

Honen onarpena lortuta deitzaileak ikastetxeko talde guztien ordezkariekin bilera antolatu beharko du.

Bileran deitzaileak greba deialdiaren arrazoiak azaldu beharko ditu eta bigarren bilera baterako hitzordua zehaztu.

Ordezkarri bakoitzak bere gelan greba deialdiaren arrazoiak azaldu beharko ditu. Ondoren bozketa egingo da eta EAGIren greba deialdi eredia bete beharko du gelan bertan. Ikasleek aukera hauek izango dituzte:

- BAI: grebarekin bat egiten badute
- EZ: grebarekin bat egiten ez badute
- ZURIA: grebaren bozketaren emaitzarekin bat egiten badute
- DESBINKULATZEA: grebaren bozketan ez parte hartzea.

Ordezkarrien bigarren bileran talde guztien emaitzak batuko dira, Ikasketa Burua edo Zuzendaritzako ordezkariaren bat bertan dela. Bozketaren emaitza erabakigarria izateko, ikastetxean dauden ikasleen hiru laurdenez bozka eman behar izango dute gutxienez. Hartutako erabakia emandako botoen erdiak gehi batek bermatu beharko du. Emaitzak Ikastetxe osoari eragingo dio eta baliozkoa izateko EAGIren greba deialdi eredia bete beharko da dagozkion sinadura guztiekin.

Emaitzaren berri izandakoan ordezkari bakoitzak bere taldeari jakinaraziko dio.

Greba egitea onartu bada eta ikasle adingaberen batek hala egingo badu, tutoreek hauen familiari jakinarazi beharko diote.